

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

724

198/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez zuzendu egiten baitira, Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) betetzeko azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenari dagokionez, lehiaketara deitutako lanposturako eskatzen den titulazioa eta Eranskinen II.2.5 apartatua ere.

Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpearen bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) lehiaketa bidez betetzeko (2025eko urtarrilaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen).

Zuzenketa honela gauzatzen da: Farmaziako Lizentzia eta Ospitaleko Farmazia espezialitatearen titulazioa izatea nahitaezko betebeharra dela zehazten da, eta, Eranskinaren II.2.5 apartatuan, Irakaskuntza Jarduerari dagokionez, Farmazia Fakultatearen erreferentzia gehitu da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua xedatzen du argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko direla, baldin eta nabarmenak ez badira eta horiek zuzentzearen ondorioz dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada. Horrenbestez, ebazpen honen bidez, akats hori zuzentzen da.

Litekeena denez akatsen izaerak hautagaien aurkezpenean eragina izatea, eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko da.

Beraz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenaren Oinarrietako 1. artikulua b) atala; ebazpen horren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) lehiaketa bidez betetzeko. Bada, honakoa esan behar du:

b) Farmaziako lizentzia eta Ospitaleko Farmaziako espezialitatearen titulua edukitzea.

Bigarrena.– Aldatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenaren eranskinen II.2.5 apartatua; ebazpen horren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Gal-

dakaoko ESIan Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) lehiaketa bidez betetzeko. Bada, honakoa esan behar du:

II.2.5.– Irakaskuntzako jarduera (gehienez, 3 puntu).

- Medikuntzako edo Farmaziako Fakultateko katedraduna (urte bakoitzeko): 1,0000 puntu.
- Medikuntzako edo Farmaziako Fakultateko irakasle titularra (urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.
- Medikuntzako edo Farmaziako Fakultateko irakasle elkartua (urte bakoitzeko): 0,2500 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.
- Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,0500 puntu.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko 15 egun baliouduneko epe bat irekitzea, azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenean aurreikusitako baldintzetan, ebazpen hau dagozkion aldizkari ofizialetan azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutzat joko dira azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenak ezarritako epean bidalitako eskaerak eta dokumentazioa.

Laugarrena.– Ebazpen hau osorik argitaratu beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2025eko urtarrilaren 30a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (579/2023 Ebazpena, apirilaren 3koa, Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearena, zuzendaritza-taldeko kideren bat ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo lanpostua hutsik dagoenean ordezteko araubidea ezartzen duena).

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari medikoa,
DAVID CANTERO GONZÁLEZ.